

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROL ETA OSASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 26an hartutako erabakiaren laburpena: 2021erako kirol diru-laguntzetarako deialdi orokorraren berariazko oinarriak onesten dituen ebazpena

BDNS(Identif.): 555945

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/555945>).

Lehen. Onuradunak

2021eko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren Eskatzaileak atalean finkatutako irizpideen ildotik, eta bertan ezarritako baldintzak betetzen dituztelarik, irabazi-asmorik gabeko kirol-entitateak nahiz beren jardunaren ezaugarriak direla eta oinarriekin bat datozen irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak izan ahalko dira diru-laguntzen ildo honen onuradun, diruz lagun daitezkeen jarduerak antolatzen badituzte eta oinarri hauetan adierazten den moduan eta epe barruan eskatzen badute diru-laguntza.

Bigarrena. Helburua

2021. urtean Gasteizko udalerrian egingo diren edo herritarrek parte hartzeko izango diren jolas- eta kirol-jardueren gastuei aurre egiteko diru-laguntzak ematea du xede deialdi honek, eta, aldi berean, txapelketa federatuetan parte hartzen laguntzea, hirian kirol jarduerak sustatzeko.

Kirol-erakundeek antolatutako kirol-jarduera diruz laguntzeko aurreko deialdian sortutako ildo mantentzen da. Izan ere, kirol-entitateek eta Kirol Zerbitzuak partekatutako helburua baita herritarren artean kirol-jarduera eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitzea.

Ildo hori aldi baterako da, eta mantentzen da osasun-egoerak sortutako ziurgabetasunagatik eta elkarrekin beren jarduerak egiten jarraitzeko dituzten zailtasunengatik.

Era berean, "A eta B multzoak" bakar batean batu dira, zaila delako alde aurretik jakitea aurreko zeintzuk jarduera-mota egin ahal izango diren, eta bi multzoetako jarduera-tipologia antzekoa delako. Hori horrela, fusioaren helburua da eskura dauden baliabideak modu eraginkorragoan eta bidezkoagoan banatzea.

Hemen arautzen diren laguntzek dirulaguntza izaera dute, eta arau hauen mende daude: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua uztailaren 21eko 887/2006 ED, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, oinarri arautzaile hauek eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 5.1 artikuluan aipatzen diren xedapenak.

Hirugarrena. Oinarriak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 26an egindako ohiko bilkuran onartutakoak. ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kirol eta Osasun Sailaren 2021eko ekitaldiko 24.40.03.3411.48935 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio diru-laguntzak; deialdiko diru-laguntzek guztira izango duten gehieneko zenbatekoa 346.500,00 eurokoa izango da, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun baliadunekoa, 2021eko diru-laguntzen kirol arloko berariazko oinarriak ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 26an

Kirol eta Osasun Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
MANUEL PÉREZ DE LAZARRAGA VILLANUEVA